



UZTAILAK 4: lanuzte eta mobilizazioak gure negozioazio kolektiboaren defentsan

Estrategia integrala sektore eta enpresetako gure hitzarmenen defentsan

Azken lan erreformak gure hitzarmenak bete-betean erasotu ditu. Eraso honetatik babesteko, estrategia integrala beharrezkoa dugu: negozioazio eremu guztiak kontuan hartzen dituen, gutxienerako edukiak bermatzen dituen eta mobilizazioan oinarritzen den estrategia, alegia. Horixe da gure hitzarmenak eta, hortaz, gure lan baldintzak, gure enplegua eta gure etorkizuna defendatzeko modu bakarra.

Hori dela eta, langileei dei egiten diegu bat egin dezaten ekainaren 28an Bilbon burutuko den manifestazio zaratatsua eta uztailaren 4ko lau ordutako lanuzte eta hiriburuetan burutuko diren mobilizazioekin.

GURE HITZARMENAK

DEFENDATU AHAL ETA BEHAR DITUGU.

Gure esparruan lortu ditugun hitzarmenek, bai sektore bai enpresa mailakoek, lan eta bizi baldintza hobek izatea bideratu digute.

Herrialde mailako hitzarmenak sektore osoaren gutxienerako erreferentzia dira. Hauek desagertuz gero, sektore horretan lan egiten duten lagun guztien lan baldintzak okertuko lirateke. Herrialde mailako hitzarmenek sektore bakoitzeko langile gehienaren baldintzak arautzen dituzte. Horregatik, hain zuzen, erreformek hauen kontra jotzen dute bereziki, babes orokor hau deusezteko helburuz.

Era berean, **enpresa hitzarmenen defentsa ezinbestekoa da**, enpresa hitzarmenak herrialde mailakoen osagarriak diren heinean. Sektore hitzarmenak mundu guztiarentzako oinarria finkatzen du, baina oinarri horretako edukiak enpresetan hobetu ahal ditugu; horrela egin izan dugu Euskal Herrian. Erreferentziatzeko sektore hitzarmenik ez balego, enpresa hitzarmenetako lan baldintzak ere guztiz okertuko lirateke berandu baino lehen.

Gainera, enpresa hitzarmenak baino ez bagenitu kontuan hartuko, langile gutxi batzuk baino ez lirateke babestuta egongo. Gehiengoa guztiz babesgabe egongo litzateke eta horixe da, hain zuzen, erreforma ezberdinek bilatzen dutena. Euskal Herriko ehundura ekonomikoa enpresa txiki eta ertainek osatzen dute ia guztiz eta hauetan oso zaila da –eta askotan guztiz ezinezkoa– enpresa hitzarmena negoziatzea.

NEGOIZAZIO EREMU GUZTIAK DEFENDATZEA DA ESTRATEGIA ERAGINKOR BAKARRA

LABek ez dio sekula uko egin ezein negozioazio eremuri eta orain ere ez dio uko egiten. **Ez erreforma baino lehen ez erreforma ostean, ez diogu uko egin enpresetan negoziatzeari; patronalak bilatzen duen bezala, negozioazioa enpresetara eta soilik enpresetara mugatzeari bai, ordea.** Enpresetan negoziatzera mugatzeak, herrialdeko hitzarmenaren oinarririk gabe patronalari bidea zabaltzen dio, hitzarmenaren edukiak kaskartzeko, mehatxuaren bidez; izan ere, enpresa eremuan, askotan, indar korrelazioa ez da langileen aldekoa.

Gaur egun, ELAk errealitate honi entzungor, enpresa hitzarmenen alde egiten du soil-soilik. Hau patronalaren eta erreformaren helburuarekin bat dator bete-betean. Langileen

lan baldintzak blindatzen dituzten 100 enpresa hitzarmen sinatu dituztela esaten dute. **Baina honek 10 langile baino gehiagoko enpresen %1 baino ez du suposatzen. Zer gertatzen da gainontzeko %99arekin? Zer gertatzen da herrialdeko sektore hitzarmenaren pean guztiz dauden langileen %90arekin? Akaso ez daukate hitzarmena izateko eskubiderik?**

Oso argi daukagu zelan egin behar den eta, horregatik, negoziazio eremu guztietan borrokatzeko prozesu batera dei egiten dugu:

1. Herrialdeko hitzarmenen alde borrokatu: hitzarmen hauek gure lan baldintzei eusteko eta hobetzeko zein erreformaren eraginak mugatzeko tresna izan behar dira.
2. Oinarrizko erreferentzia hau osatzeko, bestelako negoziazio eremu batzuk ere bultzatu (enpresa, zentroa...), beti ere herrialdeko hitzarmenak ezartzen duena ez kaskartzeko konpromisoarekin.

GURE HITZARMENAK DEFENDATZEKO, HITZARMENOK EZARTZEN DITUZTEN EDUKIAK DEFENDATU BEHAR DIRA

Eztabaida ez da negoziazio eremuetakoa besterik ez. Gure esparruko hitzarmenen bitartez, bai enpresetako bai sektoreetako hitzarmenen bitartez, lan baldintza hobekia lortu baditugu, hori izan da borrokaren bidez gure hitzarmenatarako eduki hobekia lortu ditugulako.

Hitzarmenak bizirik mantentzeko modua ez da edukiak erlatibizatzen edo patronalak nahi duen puntura arte jaistetik pasatzen, CCOO eta UGTk egin bezala, ia Madrilen soldatak jaisteko lotu zuten akordioaz edota enpresei malgutasun gehiago oparituta. Gure hitzarmenei eutsi nahi diegu, baina hitzarmen duinak nahi ditugu.

PROPOSAMEN INTEGRALA BESTE SINDIKATUEI

ELA, CCOO eta UGTri negoziazio kolektiboa defendatzeko proposamen integrala egin diegu:

1. **Negoiziario eremu guztiak defendatu**, Euskal Herriko ahalik eta langile gehienek euren esparruan lan baldintzak eta soldatak negoziatu ahal ditzaten.
2. **Gutxieneko edukiak bermatu**. Erreferentzia moduan lau sindikatuok sinatu ditugun sektore mailako 5 hitzarmenak hartu

ditugu: soldata igoerak, KPla erreferentziatzen hartuta; eskubideetan atzerapausorik ez; eta erreformaren aurrean blindatzeko klausulekin: ultraaktibitatea luzatu eta deskuelge klausuletan derrigorrezko arbitrajirik ez.

3. Mobilizazioan oinarrituta. Borroka ezinbestekoa da patronalaren blokeoa gainditzeko eta aurreko puntu biak posible izateko. Mobilizazioa, erreformaren aurrean blindatu ahal izateko berme bakarra da.

Hori dela eta, beste sindikatuei dei egin diegu estrategia orokor honen aldeko borroka planteamendua adostu dezagun. Honela, proposamen honekin bat etorri ziren sindikatuekin batera, mobilizazio jendetsuak burutu genituen ekainaren 21ean. Baina borroka honek jarraipena izan behar du patronalaren blokeoari aurre egin nahi badiogu eta mugitzera behartuko badugu. Hori dela eta, uztailaren 4ean lau ordutako lanuzteak eta mobilizazio are jendetsuagoak egingo ditugu, berriro ere LABek egindako planteamendu honekin bat datozen sindikatu guztiekin batera. Honekin batera, mobilizazio propioa ere burutuko dugu uztailaren 28an, Bilbon, gure aldarrikapenak eta gure mezua Confebask eta Eusko Jaurlaritzaraino eramateko.

Borroka bateratu beharra dago, erantzun ahalik eta sendoena emateko, edozein plantilla, handia edo txikia izanda ere, edozein sektoretakoa, ez dadin gelditu hamarkadetan zehar negoziazio kolektiboa eta gure konbenioak ezaugarritu dituen erreferentziarik gabe.

Uztailaren 7an indarraldia galtzen duten hitzarmen guztietako sektoreen eta negoziazioak zabalik dauzkaten sektoreetako langile guztiei dei egiten diegu mobilizazio eta borrokara. Posiblea da eta lortu egingo dugu!

EKAINaren 28an: MOBILIZAZIO ZARATATSUA BILBON, 12:00ETAN ARRIAGATIK CONFEBASK ETA EUSKO JAURLARITZARA

UZTAILAREN 4ean: LANUZTEAK 10:00ETATIK 14:00ETARA ETA 11:30ETAN MOBILIZAZIOAK HIRIBURUETAN.

Confebask, Adeg, Cebek, Sea eta gainontzeko patronalek ozen entzun dezatela gure mezua:

EZ DIEGU GURE LAN BALDINTZEI UKO EGINGO!

GURE HITZARMENAK DEFENDATU EGINGO DITUGU, ORAIN ETA UZTAILAREN 7aren ONDOREN ERE!

EUSKAL HERRIAN LAN ETA BIZI, BERTON NEGOTIATU!